

## **BIOGRAFIAK**

### **Madalen Reparaz Flores, nire amona**

Madalen, herriko plazetan eta parkeetan lagunartean kontu-kontari aritzea gustatzen zaion emakume xarmanta da.

1940ko urriaren 20an Arbizu izeneko Nafarroako herri txiki batean jaio zen. Sei anaia-arrebetatik zaharrena da.

Gerra ondoko garai hartan luxu handirik gabe bizi ziren nekazaritzatik eta etxean zituzten txerrietatik. Noski, Arbizukoak izanik, txistorra egiten zuen haien etxean ere.

Txikitán, inguruko zelaietan, mendietan, erreketan eta, batez ere, basoan ibiltzen zen lagunekin. Herriko eskolan ikasi zuen irakurtzen eta idazten, matematikak eta abar. “Maistra” gogoan du, nola ahaztu bada! ez du ahaztu ere harek ibiltzen zuen zumitz adarra, zintzoak ez zirenen hatzamarrak kolpatzeko.

Etxean senide asko zirenez, ezin izan zuen luzaroan joan eskolara, etxean laguntzeko lanean hasi behar izan baitzuen 14 urterekin.

Txikitako lagun batzuen bidez izan zuen gure herriko berri. Gurean lana eskaintzen zuten lantegi asko omen zeuden, giro handiko herria, umoretsua eta festa zalea... Donostiatik hurbil.

Eta hala, jaioterria atzean utzi eta gurera etorri zen. Pekinen hais zen lanean, torlojuak egiten.

Igandetan zumardira joaten zen dantza egitera. Bandak jotzen zuen musika. Mutilek dantza eskatzen zieten neskei “a lo agarrau” dantzan egiteko.

Igande batean dantza eskatu zion Mikel Mendartek. Dantza dantzaren atzetik egin ondoren maitemindu eta 1965eko ekainaren 24ean ezkondu ziren Guadalupeko ermitan. Gaztañon jarri ziren bizitzen, errentan hartu zuten etxe txiki batean.

Bost seme-alaba izan zituzten, tartean gure ama.

Hainbeste umekin nahikoa lan izan zuen haiek denak gobernatzan. Izan ere, ezkondu zenean lana utzi behar izan zuen, garai hartan emakume guztiek egiten zuten bezala.

Beraz, etxean lan egin zuen etxeko lanak egiten eta umeak hazten.

Seme-alabak handitu zitzaizkionean berarentzat denbora hartu zuen.

Gaur egun nire amonak lau biloba dauzka. Gustura ibiltzen da haiekin paseatzen eta bere txikitako eta gaztetako kontuak esaten.

Gainera, bere lagunekin bidegorrian ibiltzen da: egunero Ergoieneraino joaten dira. Auzokoekin aritzea ere oso gustukoa du: festetarako gauzak antolatzen edo behar diren gauzetan parte hartzen. Iaz, “Gamusinoen gauean” kanpin denda ipini genuen Arramendin eta amona ere gurekin etorri zen... oso martxosa da gure amona!

### **Joxe Mantxola “bixikleteroa”**

Joxe Mantxola Andueza Legazpin (Gipuzkoa) jaio zen 1937an.

Herriko eskolan lehen ikasketak amaitu zituenean, Donostiara joan zen irakasle ikasketak egitera.

Herriko eskolan hasi zen eskolak ematen eta oso ezaguna eta maitatua izan zen bertan. Neska-mutilei eskolak emateaz gain, ospe handia lortu zuen haur antzerki talde bat osatu zuen.

Garai hartan oso ohikoa zen jendea bizikletaz ibiltzea. Behinola, herriko medikua bizikletaz zihoan baserri batean gaixorik larri zegoen haur bat artatzera. Errebuelta batean gurdi bat topatu zuen aurrez aurre, harekin talka egin eta bizikleta ez aurrera ez atzera geratu zitzaion.

Han inguruan zebilen Joxek medikuaren bizikleta hartu eta trebetasun handiz berriro bidean jartzea lortu zuen. Medikua garaiz heldu zen baserrira eta haurra salbatu ahal izan zuen.

Azker zabaldu zen herritarren artean gertatutakoa. Eskolako umeez berehala ipini zioten ezizena maitekiro Joxeri, “bixikleteroa”.

Gaur egun jubilatuta dago Joxe; ez, ordea, erretiratuta. Arratsaldero, etxepean duen tailerrean bizikletak konpontzen aritzen da hara hurbiltzen denari. Gustura aritzen da irakasten ere bizikleta konpontzeko ahaleginean ari den neska-mutilari.

### **Koldo Mitxelena**

Koldo Mitxelena Elissalt idazlea, hizkuntzalaria, irakaslea eta euskaltzaina gure herrian jaio zen 1915eko abuztuan.

Txikitan oin batean tumore bat sortu zitzaion eta urtetan egon zen gaixo; ez zuen lagunarteko jolasik ezagutu zortzi urte bete zituen arte. Aita otargina zuen eta haren ondoan herriko berriketak entzuten zituen bitartean ikasi zuen irakurtzen eta beste eginkizunik gabe biziki zaletu zen. Gainera, aita oso abertzalea zenez, euskarazko paper eta aldizkari ugari izaten zituen.

Ama, berriz, Donibane Lohizunekoa zuen.

Eskolarik gabeko hizkuntza zuen Koldo Mitxelenak, inguruan zituen euskaldunen antzera. Herri osoa zen euskaraz ikasi gabea.

Gerra hasi zenean, abertzaleekin boluntario joan zen. Preso hartu zuten eta heriotz zigorrera kondenatu zuten. Azkenean, 30 urteko kartzela zigorragatik konmutatu zioten zigorra. Han egin zituen urte batzuk eta ikasketak hasi zituen.

Herrira itzuli zen osasunez patal samar. Handik gutxira Madrilera joan zen lanera.

Madriren klandestinitatera pasa zen eta berriro atxilotu zuten 1946an. Beste hiru urte egin zituen kartzelan.

Ondorengo urteetan hainbat unibertsitatetan irakasle izan zen. Euskara batuaren sorreran ibili zen.

Literatura irakurle amorratua zen eta zinea ere oso gogokoa zuen, zine-kritikak idatzi zituen. Bestalde, hezkuntza eta kultura arloko erabakiak hartu behar zirenean maiz joaten zitzaizkion aholku eske. Euskal Herriko Unibertsitatearen sorreran parte hartu zuen baita normalizazio kulturallean ere. Urte luzez Euskal Hiztegia prestatzen jardun zuen; argitaratu aurretik hil zen, ordea.

Herrian hil zen 1987an, 72 urte zituela.

**Jose Manuel Lujanbio, Txirrita: “Bertsolaria, parrandazalea eta pikaroa”**

Txirrita bertsolaria Hernaniko Ereñozu auzoan jaio zen 1860ko abuztuan.

Mingain zorrotz eta bizkorreko bertsolaria izan zen. Haren ateraldi umoretsuak gorde ditu herriak gogoan. Jende asko joaten omen zitzaion norbaiten kontrako bertso-paperak jar zitzaizkion eskatzera.

Eskola zaharreko mutilzahar, parrandazale eta pikaroaren prototipoa bihurtu da *Txirrita* euskal iruditegian. Antza, gerrara joango zen semerik ez zuen nahi Txirritak, horra hor mutilzaharra segitzeko arrazoietakoa bat.

Hamahiru urte zituela gure herriko Txirrita baserrira etorri zen bizitzera bere familiarekin. Hargin ona izan arren, ez omen zitzaion lan egitea asko gustatzen ahal zuen guztietan jai hartzen omen zuen tabernan edanean eta jokoan aritzeko.

Eskolarik gabea zen; inprentako hizkiak irakurtzeko gai bazen ere, ez zekien idazten eta bertsoak ilobari diktatzen zizkion.

1936ko ekainaren 3an hil zen Alzako Gazteluene baserrian.